

Karkara

50A

50 ZINEARTA



1996KO APIRILA



50.

Kar azenbaki

ar ara

Elurra malo-malo

ERREPORTAJEA: AITA LERTXUNDI • ELKARRIZKETA: ANA G. DE TXABARRI

DIRULAGUNTZAK

IKERKETA-LANAK EGITEKO

'Euskaraz Gazte 96' ekintza-programaren barruan, ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzak eskainiko dizkie Orioko Udalak herriko gazteei.

Dirulaguntza horien bitarte bi helburu bete nahi ditu Udalak: batetik, gazteak animatzea euskararentzat beste erabilpen-esparru bat (ikerkuntzarena, alegia) irabaz dezaten eta, bestetik, Oriori buruzko ikerketa-lanak bultzatzera.

Orioko gazte-jendea gero eta jantziago dago, gero eta gaitasun handiagoa du horrelako lanei ekitiko eta Udalak, dirulaguntza hauen bidez, bultzadatxoa eman nahi die gure gazteei, dutenetik eman dezaten herritar guztioen probetxurako.

Oinarriak

- 1.- Dirulaguntza lortu ahal izateko baldintzak bi izango dira:
 - Orion jaioa izatea edo bertan bizi, ikasi edo lan egitea.
 - 15 urtetik 29ra arteko adina izatea
- 2.- Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izango dira. Lana euskaraz sortu beharko da; ez da erdarazko lanen itzulpenik onartuko.
- 3.- Edozein gai jorratu ahal izango da, beti ere Oriori buruzkoa edo Oriorekin zerikusi zuzena duena baldin bada. Gainerantzean, ikerketa-lanaren gaia guztiz librea izango da: hizkuntza, historia, ekonomia, ekologia, geografia, kirola, bertsolaritza...
- 4.- Lanak bakarka edo taldeka egin ahal izango dira.
- 5.- Udalak bi dirulaguntza emango ditu: bat 120.000 PTAKoa eta beste 80.000 PTAKoa.
- 6.- Dirulaguntza horietako bat eskuratu nahi dutenek txosten labur bat (bizpahiru orrialde) aurkeztu behar dute Udaleko Euskara Zerbitzuan egin nahi duten lanaren nondik norakoak azalduz. Txostena **1996ko apirilaren 26a** baino lehen aurkeztu behar da.
- 7.- Udaleko Euskara Batzordeak erabakiko du dirulaguntzak nori eman eta 1996ko maiatzaren bukaeran jakinaraziko du hartutako erabakia. Udalak hutsik utz dezake dirulaguntza-deialdia.
- 8.- Ikerketa-lanak urtebeteko epean burutu beharko dira.
- 9.- Dirulaguntza bi zatitan ordainduko du Udalak: erdia lana hasterakoan eta beste erdia hori amaitu eta aurkezterakoan.
- 10.- Lanen luzera **50 orrialdekoa** izango da gutxienez.
- 11.- Udalak beretzat hartuko du lan horiek argitaratzeko eskubidea.

KarKara

Herriko Plaza, 1
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
1.200 ale

Erredakzio-taldea

Miren Etxeberria

Eba Gaztañazpi

Iakes Goikoetxea

Ana G. de Txabarri

Ana Iturain

Iñaki Iturain

Nere Manterola

Ainara Peña

Jabier Zabaleta

Aiako Erredakzioa

Eli Lasas

Idoia Zarautz

Publizitate-arduraduna

Miren Etxeberria

Kolaboratzaileak

Andres Garmendia

Andu Lertxundi

Jon Manterola

Aitor Sarasua

Argazkiak

Ana G. de Txabarri

Banatzailea

Miguel Angel Sanz

Inprimategia

Bizker (Usurbil)

4 Gutunak

5 Herrian galdezka

KARKARAko ze atal da gehien gustatzen zaizuna?

6 Herriko kontuak

10 Kirolak

13 Disko-kritika

14 Iritzia Andu Lertxundi

15 AIA

Berriak

Elkarritzeta: Mikel Markez

19 Elkarrizketa

Ana G. de Txabarri

22 Erreportajea

Aita Lertxundi: Pobrean Aita

24 Denetik pixka bat

29 Kolaborazioa

Aste Santua: Eliza edo Ibiza

30 Azkena

31 Gure zaharren ahotik

1996ko publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauetako zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Euskal Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Orio eta euskara

Lehenik eta behin, garbi uzi nahi dugu ez dugula inongo interes politikoren alde eta, are gutxiago, aurka jokatzeko asmorik. Gure hizkuntzaren egoera da kezkatzen gaituen bakarra.

Arazoa kompon dadin muinetik helda behar izaten omen zaio: arazoa zein den budakigu eta muina Udalak da, jakina. Azken finean, ez al da bere lana Oriok, herri euskaldun batek, euskarak funtziona dezan sariatza?

Kanpoko herri askok hartu du eredu gisa Orioko 'Euskararen Erabilera Normalizatzeo Udal Ordenantza', egia esan, oso polita baita. Bainan aitoritu behar da ordenantza horiek oraindik egia bihurtu ez den amets bat direla. Ordenantzaren arabera, euskara erabilizko konpromezua hartzan du Udalak bai harne funtzionamenduan, eta bai herritarrekiko edo erakunde guziekiko harremanetan.

Udalak ez badu hartutako konpromezua betetzen, nork bete behar du? Gu prest gaude lanerako, baina heldur gara horretarako ere ez ote ditziguten eragozpen asko jarriko.

Frogak ere badaude, bestela ez genuen idatzi hau kaleratuko: esate baterako, nahiz eta udaleko zenbait bilera euskarak egin, badakigu bilera horietako aktak erdaraz egiten direla eta ez direla euskaratzen behin eta berriz eskatu arren. Hori al da euskaren erabilera normalizatzen laguntea? Aktak hasiera batetik erdaraz egiten dira, lotsagarria, eta gero ez dira euskaratzen, are lotsagarriagoa.

Udalak ez dakit, baina guk maite dugu gure hizkuntza eta gure esku dagoena egingo dugu iturri hori agor ez dadin. 35 taldek, Udalak barne, sinatu zuten hitzarmena ere gogoan dugu; baina badakigu bertan esandako hitz polit denak egia noiz bihurtuko zai bagaude, jai daskgula. Hori bai, estimatzeko da zenbait elkartek euskarako agertu duten jarraira ona, baina Udalak kezkatzen gaitu. Azken finean, bere esku baitago guzti honen zati handi bat. Hitzarmen horretan erakunde asko bustiarazi dituen bezala, bera ere bustiko delakoan gande. Bere demonstrazioaren zai geratzen gara.

Ireki begiak, zabal bihotzak eta mintza euskarak. Guk euskarak, ziek ere euskarak, EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ!

Orioko EHE

Euskara zokoratuta

Bodira ia 9 urte Orioko Udalak euskararen normalizazioaren plangintza martxan jarri zuela. Gaur egun, langile gehienek —idazkaria barne— lortua dute beren hizkuntz eskakizuna. Bestalde, Udalak aho batez onartu zituen Euskararen Udal Ordenantza 1991n.

Ordenantza horretako 6.2 artikuluak honela dio: 'Udal Plenoak, Gobernu Batzordeak eta Batzorde. Informatzaileek egiten dituzten bilkuretako deialdiak eta aktak euskarak erredaktatuko dira'. Azken hortz urre hauetan, hala ere, Gobernu Batzorde eta Plenoetako aktak gazteleraez idazten dira. HBk aktak euskarak jasotzea eskatu dio etengabe alkateari, erdarazkoak jasotzeari uko eginez, baina denbora guzti horretan uko egin zate gure eskubideei.

Hori guztia dela eta, otsailaren 28an izandako plenoen, pleno hartan bertan aktak euskarak idazten hasteko exijitu genuen, aztergai-zerrenda eztabaideatzen hasi aurrelik. Importantea zen eskuera plenoa hasi aurrelik eztabaideatzea, horrek ekarriko baitzuen pleno hartako akta, jada, euskarak idaztea. Alkateak HBren proposamena bukaera eztabaideatzeko utzi nahi izan zuen, aztergai-zerrendan ez zegoela esanez. Argi zegoen ez alkateak eta ez beste zinegotziek ez zutela horondaterik gaia behin-betiko konpontzeko.

Horren aurrean, HBko zinegotziek plenoa utzi eta bertan zeuden herritarren artean gelditu ziren. Plenoko gaiak bukatu ondoren, hirza eskatu genuen, herritar gisa, baina alkateak plenoa bukatutzat eman, altza eta pleno-aretoik alde egin zuen. Alkateak, argumenturik ez duenean, irtenbide errazena hartzan du: alde egiten du herritarren eskubideak mesprerezatuz.

Berriro ere nabarmen ikusi da bai alkateak eta bertan zeuden beste zinegotziek euskarako konpromezua hauteskundeetan eta argazkietan azaltzeko besterik ez dutela, eta, inolaz ere ez, eguneroko jardun eta zereginetan.

Non dago, Makazaga (EAJ) eta Leunda (EA) jaunak, zuen euskarako atxekimendua, errespetoa eta zaletasuna?

ORIOKO HB

Zuekin edo zuek gabe

Aspaldi honetan asko hiz egin da (agian gehiegiz) Zaragueta eta Ikastolaren arteko "lehiari" buruz. Oriotar gehienetan nahia gai hau behingoz uztea izango da, noski. Gu ere nazkaturik gaude hainbeste istiluz, baina duintasunak iritzia publikoki azaltzen bultzatu gaitu, batez ere KARKARAn Antonio Camposen gutuna irakurrita.

Gu ere gutxiengoan gaude, baino oso harro. Camposen iritzia errespetatzen badugu ere ez gaude ados zenbait punturekin. Norbaiten alde egitea norbaiten aurka aritzea dela esan ohi da. Gu Zaraguetaaren alde egonagatik ez gaude Ikastolaren aurka, zenbaitek besterik uste badu ere.

Camposen kartan hiru aldiz dator bi eskoletako umeen kopurua. Bai, Ikastolak Zaragueta baino ume gehiago ditu. Bainan zein intentziorekin esaten da hori? agian, jendeari azaltzeko gehiengoak eskubide guztia dituela gutxiengoaren gainetik? edo gehiago zaretelako arrazoi eta botere guzti duzela gutxiengoa zapaltzeko?. Guk horri zapalketa deitzen diogu. Jakin ezazu; herri bateko gauzarik handienak minoriak lortu ohi ditu.

Zaragueta "mantxuriano" edo erdaldun eskola bezala ezagutu izan da, arrazoirik gabe. Camoposek ere harro adierazten du Ikastolaren izaera euskalduna. Zaraguetaaren izaera erdaldun faltsua zabaldu nahian. Guk, hango ikasle ohiak, argi utzi nahi dugu Ikastola bezain abertzale dela Zaragueta, eta beriako irakaskuntza erabat euskalduna. Harro gaude han ikasi izanaz, eta edozein bezain abertzale sentitzen gara. Euskarak oso ondo ikasi genuen eta unibertsitate-ikasketak euskarak egiten ditugu.

Hobe omen da edifizio publiko bat erabiliztea itxita izatea baino. Ados. Bainan Orioko gazteek hainbat aldiz eskatu dugu edifizio publiko horietako bat elkartzeko, eta oraindik ez dugu lortu. Azalduko diguzu zer egin behar den lokalak lortzeko, zuek bezala.

Guk benetako euskal eskola nazionala defendatzen dugu Euskal Herri libre batean, eta gure proiektuarekin jarraituko dugu, tingo, etsi gabe. Zuekin edo zuek gahe.



RUBEN IGLESIAS
J. IGNACIO ALGUACIL

KARKARAko ze atal da gehien gustatzen zaizuna?

Esku artean duzun KARKARA hau 50.a dela eta, jendeak lehendabizi zer irakurtzen duen jakin nahi izan dugu. Jasotako erantzunen arabera, badirudi gehienek aldi-karia atzekoz aurrera irakurtzen dutela.



PILARE AIZPURUA
54 urte

Lehendabizi azkenengo orrialdeko *Ezetz ezagutu!* begiratzen dut, atzeik hasten bainaiz irakurtzen. Eta gero, gu Italian izan gineneko istorioak eta horrelakoak ere asko gustatzen zaizkit.



FATIMA ETXEBERRIA
28 urte

Aurreneko orrialdean zer datorren begiratzen dut, eta gero estropadak izan badira *Kirolak* begiratzen ditut, eta baita jaio direnak ere. Hala ere, orokorrean, dena gustatzen zait.

J. KARLOS LEUNDA
53 urte



JUANJO ARRUTI
30 urte

Herriko gora-beherak eta Aiako berriak gustatzen zaizkit gehien, *Kirolak* eta *Baserria* ere asko gustatzen zaizkit. *Ezetz ezagutu!* begiratzen dut eta askotan zein diren asma-tzen saiatzen naiz.

Atzetik hasi eta aurreaino dena irakurtzen dut, baina gehien gustatzen zaizkidanak *Kirolak* eta *Herriko Kontuak* dira, herriko berriez enteratzen naizelako. Baima egiaesan, dena ondo dago.



Orioko Ogia



LIZASO

ERLOJU eta
BITXI DENDA

Orio, Irald 3 Tfnoa: 81 10 90
Zarautz, Ipar 6 Tfnoa: 81 17 43

IPARRAGIRRE

AUTOZERBITZUA

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15

**PA
SO
KA**
OINETAKOAK

Flaurrentzako
oinetakoak

San Nikolas, 9 behe
Tfnoa: 83 28 05

URANGA
BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI, 7
Tfnoa: 83 12 36



25. zenbakia kaleratu zenean baxkaria antolatu zuen KARKARAk.
Orduko da argazki hau eta bertan ikus daiteke batzuk ze ederkiz pasu zuten.

KARKARAk 50. zenbakia ospatuko du

Bertso-afaria egingo du Balea elkartean

Eskuartean duzuen hau KARKARA aldizkariaren 50. zenbakia da. Zenbakia borobil hori ospatzeko, aldizkaria argitaratzen dugunok bertso-afaria antolatu dugu martxoaren 29rako. Aferia Balea elkartean izango da eta hiru bertsolari izango dira kantari: Jon Sarasua, Joxe Mari Lertxundi aiarra eta Ibai Esoain oriolarra.

Ez du ematen baina dagoeneko badira 7 urte KARKARA lehenbiziko aldiz kaleratu zenetik. Lehenbiziko zenbakia 1989ko San Pedroetan kaleratu zen eta bigarrena, berriz, handik sei hilabetera: San Nikolasetan. Bigarren urtean, hiru hilabetez behin kaleratu genuen KARKARA. 1991n ez zen KARKARArak kaleratu, orduko udal-korporazioarekin izandako gora-behera batzuk zirela medio. KARKARA 1992an hasi zen aldizkaria hilero argitaratzen eta, gerotik, hutsik egin gabe bete du beti konpromezu hori.

KARKARA egiten dugunok eskerrak eman nahi dizkizuegu zuei, gure irakurleei, zuen harrera onak egin baitu posible 50. zenbaki honetara iristea. Mila esker.

Bertso-afariari aurrea hartuz, hona hemen, bertso batean, ale honek egiten dizun eskaintzaren laburpena:

Berrogeitamargarrena, / KARKARAk gaur dakarrena, / txirrindulari itzulia da / garrantziskoena, / baina hori ez da dena / izango baitu omena / Aita Lertxundik orri hauetan / oriotartena.

Aste Santuko mezen ordutegia

Aste Santuko mezen ordutegia honako da: martxoaren 31n, Erramu eguna da eta meza nagusia izango da bertan Erramu-bedeinkapena egingo delarik. Apirilaren 4an, Ostegun Santuan, 18:00etan Meza izango da eta 19:00etan Meza Nagusia. Apirilaren 5ean, berriz, goizeko 05:00etan Gurutzibidea egingo da San Martin Elizara. 10:00etan elizan bertan gurutzibidea egingo da gazieleraz, eta 11:00etan, berriz, euskaraz. 17:30etan Jaunaren nekaldi ospakizuna. Gero, Ostiral Santuko prozesioa. Bukatzeko, hilaren 16an Pazko eguna ospatuko da 11:00etan Meza Nagusia izango delarik.

Hauteskundeetako emaitzak Orion

Martxoaren 3an egindako Espaniako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan honako hauek izan ziren Orioko emaitzak (Kongresurako datuak dira):

Boto gehien EAJk lortu zituen: 825. Ondoren HB izan zen, 490 botorekin. Hirugarren indarra Orion EA izan zen eta 410 boto lortu zituen. Gainontzeko alderdi nagusien emaitzak hauek izan ziren: PSE-EE, 294 boto; PP, 156 eta IU, 67.

3.453 oriarrek zuten bota emateko esku bidea eta horien % 32,70 abstentzen zuten.

**OLIDEN
HARATEGIA**
EUSKO GUDARI, 2
TFNOA B3 10 86



ORTZAIZKA
JATETXEA
* Bataioak * Despedidak
* Jaunartzeak * Ezkontzak
Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

Makalu 96 espediziorako ekintzak

Makalu 96 espedizioko partaideek jendearen jarrera eta dirulaguntzak eskertzeko ekintza batzuk antolatuko dituzte urtean zehar. Lehenengoa maiatzaren 4 eta Sean izango da. Bertan, Makalu 96ren aurkezpena egiteaz gain, Broak-Peak-eko (8.067 m.) igoerari buruzko proiektioa ere egingo da Itsas-Etxean. Handik bueltan elorriondoren ikusentzuteko emanaldiak izango dira herri mailan eta ikastetxeetan. Gabonak aldera erakusketa bat egingo da espedizioko material eta argazkiekin. Makalu mendiaren argazkia Orioko Udaletxeko anagramarekin aterako dute eta ekitaldi guziek Talai Mendirena eramango dute.



Euskal Herrian Euskarazek UEMARI buruzko hitzaldia antolatu zuen

Berriz ere Txiskolan

Ibai Escain, Xabier Sukia eta Eusebio Lasarte txiste kontatzen ETBn bi aldiz izan ondoren, biak irabazi ditutte, eta final surrekoetara iritsi dira. Bestetik, Asier Gózategi, Jon Abaurrea eta Zumaiako Xabier Dominguezek murrera jarraitzen dute lehen saioa irabazi ondoren.

Martxoaren 14an EHEk antolatuta UEMARI (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) buruzko hitzaldia izan zen Itsas-Etxeko aretoan, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

UEMA 26 herrik osatzen duten mankomunitatea da. Bere helburu nagusia mankomunitateko herrietan euskara esparru guztieta zabaltzea da.

Hitzaldiak bi zati izan zituen. Batetik, Iñaki Arregi UEMAKO ordezkaria izan zen hizlari mankomunitatea zer den azaltzen.

Bestetik, bigarren zatian, hurbildutako jendearen artean (25 lagun inguru) Orioko euskararen egoerari buruz hitz egin zen eta, besteak beste, udaletxeko funtzionamendua euskalduntzeko zer egin litekeen eztaba idatzi zen.

ALUYOLA, S.L.

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,

BAINU MANPARAK

P.V.C., ALUMINIOA,

POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

Fatima Azpiroz Ibarreta

Jalzkibel plaza, 8 LASARTE

Telfonoa: 36 22 77

Eskan ezazu zure branda

R A M I R O

Telef.: 83 10 48

K
Kuttun

Balearen kalea, 2 telfnoa: 83 38 04

IL GELATO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolas, 17 TFNGA 131747

Ruandako haurrek Olentzeroren bisita izan dute

Lebengo urtean bezala, Orioko Herri Ikastolak egunberrian Giharako (Ruanda) umezurtzei laguntza bat eman nahian kampaina bat egin zuen. Ikerketen borondatezko aportazioa 161.665 pezetakoia izan zen eta Gabonetako eskean bildutakoia 51.975koa. Diru hau, Giharako 360 umezurtzi arropa berriak egiteko erabiliko da.

Zaharrek irabazi gazteei musean

Suziedadeen arteko mustraxapelketa Zaharren Babeslekuko bikoteak irabazi zuen martxoaren 22an. Felipe Jimeno eta Joxe Aramendi ziren Babeslekuko jokalariak eta Baleako Joxe Manuel Santamaría eta Juan Antonio Larrañagaren kontra jokatu zuten finala. Hirugarren postuan San Juan Elizpeko Txomin Larburu eta Jose Luis Barrenetxea izan ziren eta laugarrenean, berriz, Biziente Azkue eta Txomin Orbañanos. Gero, denen artean, afari goxo-goxoa izan zuten Bales elkartean.



Herriko merkatariak euskarra hobetzen

Udaleko Euskara Batzordeak orain dela bi urte jarri zuen martxan *Euskara Merkatal Mundura* izeneko egitasmoa. Herriko merkatariekin harrera ezin hobea egin diote azken bi urte hauetan egitasmo horri.

Iaz bezala, aurten ere bi talde osatu dira kampaina horren barruan antolatzen *Merkataritzako Euskara* izeneko ikastaroa egiteko. Talde bat iaz ere ikasten aritutakoa da, eta bestea, berriz, aurten hasi dena.

Ikastaroa 30 ordukoa da bi taldekoentzat eta astean behin ematen da, bazkalondoko garaian. Talde bakoitzean 6-7 lagun ari da ikasten eta irakasleak Eba Gastañazpi eta Aurora Azkue dira.

Orio's Shop

ERA GUZTIETAKO ARROPA

JAINARTZE,
BATAIO ETA
EZKONTZETARAKO
ARROPA APROPOSA

DORRONSORO
JANARIDENDA

Abeslari 3 T 83 09 37

KOLON TXIKI

* PINTXOAK * KAXUELITAK
* EGUNEROKO MENUA

T 83 00 44 / 13 20 26

Herriko plaza, 4

ORIO

AUTO-ESKOLA

Telefonia: 83 57 19

Jubilatuaren eguna

Guztira 282 lagun bildu ziren ostegunean, hilak 28, Jubilatuaren eguna ospatzera. Hamaika eta erdietan meza nagusia izan zuten hildako bazkideen alde eta gero bazkari goxo-goxoa Altxerrin.

Joxe Egibarren argazkiak ikusgai Salatxon

Martxoaren 29tik Apirilaren 26rarte Salatxoko Joxeren argazkiak izango dira ikusgai. Bertan munduko leku desberdinako haur eta emakumeen argazkiak egingo dira. Aipatzeko da Joxek hiru sari irabaziak dituela: Kukurri taldearena eta bi aldiz Bilboko Marco Polo klub-ak antolatutakoak.

Bestalde, apirilaren 19an gaueko hamarretatik aurrera Moment Jazz talde kataluniarra arituko da.

Urretxuko abesbatza

Apirilaren 27an Urretxuko abesbatzak kontzertua eskainiko du San Nikolas elizan.

Kontzertua arratsaldeko 7etan hasiko da.



HERRIKO KONTUAK

Ikusmina sortu zuten ETBko kamarek herriko plazan

Argazkian ageri diren bezala harrapatu genituen *Arralde* programa grabatzen Herriko plazan joan den astea. Kontua Mustaphak ETBra deitu zuen ostegunean hasi zen; *Goenkalek* jarraitzerik nahi zuen galdegir zioten eta, hain urduri zegoenez, baietz esateaz gain, 450 kapitulu nahiko zituela gehitu zuen. Gero, berriz etxera deitu zioten, harrituta nonbait izenarekin, eta, Mustaphak, Mikelekin hitz egiteko aukera izan zuen. Ez zitzaizkion artean nerbioak pasa eta, arabieraz agur esateko eskatu zionean, agur esan beharrean *Kaixo!* esan omen zuen. Elkarrizketa egiteko ere dei egin zioten eta hauxe da gure irudian azaltzen dena: Mustapha, Mohamed bere anaia eta Margarita solasean; Balearen bertsoak ere kantatu omen zituen! Aita Lertxundik arabiera ikasi zuen Marokon, marokoarrek, ordea, euskara Orion.

Elkarrizketa hau apirilaren 11n emango dute *Arralden*.

ANTONIO ALONSO, S.L.

Denda Telefaxa: 13 10 88

Almazena Tfnoa: 13 25 33 Faxa: 83 57 01

◆ MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK

◆ SUKALDE EKONOMIKOAK

EROSLE

AUTOZERBITZUA

ERRUSTA
Kriston
bokadillok!!



KoastA
Lasaitasuna eta giro ona



*Aspaldiko argazki honetan ikus daitezke korredoreak Oriotik pasatzen.
Aurten berian bukatuko dute itzulia*

Indurain, Olano eta Rominger lehian Orion

*Indurain, Olano eta
Rominger lehian arituko
dira Orion, Zulle,
Chiapucci, Jalabert,
Berzin eta beste
hainbatekin batera,
balduin eta azken etapara
arte amore ematen ez
badute.*

Apirilaren 12a egun handia izango da Orion, Euskal Herriko 36. Txirrindulari Itzulia bertan amaituko baita. Apirilaren 8an Lasartetik abiatuko den tropelak 144 txirrindulari izango ditu, zortzi-nako 18 taldean banatuta. Lehengohi etapak Oriotik pasako dira, arratsaldeko hiruak aldera astelebenekoa eta bostak laurden gutxi aldera, asteartekoak.

Ostiralekoan, beriz, azken etapa Orion bukatuko da hamabiak aldera. Lekunberri-tik goizeko bederatzit eta erdieta abiatuko den etapak 97 km izango ditu, Leitzan, Goizueta, Hernani eta Usurbil-ek barrena Oriotik pasako da 11:26tan; San Pedrotik Aiara igo ondoren, beriz itzuliko dira Orioko gainetik barrenetik, Txankatik igo eta hondartzaldera jaitsita, Kul-

tur Etxearen parean bukatuko da. Arratsaldean, sei kilometro eta erdiko kronoigoera izango da, plazatik abiatu eta, hondartzako bidegurutzetik barrena, Bentaraino.

Bentarako bidea zeharo berrituta dago dagoeneko eta antolaketarako taldea eratuta: Aiatik 20 bat lagun ditzo laguntzera, Oriotik 60 bat izango dira eta Donostiako udaltzainak ere etortzekoak dira. Guztira, 120 bat lagun arituko dira antolatze-lanean.

Egun horretan herrikik ate-ratzko Goiko Kaletik barrena Dikeko aldapatik egin beharko da. Bentarako bidea itxita egongo da zortziatik aurrera, bertako baserritarrantza ez beste guztientzat.

Etapa horren antolaketa-gastua 10.500.000 PTAkoa izan da Orioko Udalarentzat. Egun horretan 500 PTA kobrauk zaie ikuslei. Antolatzaileek esan-digutenez, kito gelditzea espero dute. Txapeldunei musu emango dien neskak bat erabakia dute: Nerea Arriaga.

Karrera irabazteko fabori-totzat Olano jotzen dute, izu-garrizko gogoa omen dakar eta.

Indurainen parte hartzea, beriz, ez omen da guztiz se-gurua, eguraldi ona egiten badu, etorriko omen da.

**PATXI
HARATEGIA**

Telfonoa: 83 18 37

**URAITZ
LURRINDEGIA**
KIROMASAIA ESTHETICIEN
ENDIA, 3 Telfnoa: 83 18 97

**Eugenio
Garmendia**

KONTSEILARITZA
Telfnoa: 83 44 66

M
ORRAZKERAK

TFNOA: 83 12 61

Gazte-
entzako
prezio
bereziak

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
Telfnoa: 83 00 05
13 25 32

Idien arteko apustua

Martxoaren 10ean bi idibikote aritu ziren lehian Markinan: Olidenena Beñerenaren aurka. Tartean 100.000 pezeta zeuden jokoan. Idi pare bakoitzak Etxebarriko "Harri baltza" (2.200kg.) mugitu behar zuten. Markinako idiek egin dako lana: 36 plaza eta 3m. Ondoren Oriokoak errez hasi ziren eta bazirudien irabazi egingo zutela; azken momentuan, ordea, idi bat gelditu egin zen eta 36 plaza eta metro t'eri egin zuten.

Paleta Txapelketa

Martxoaren 23an hasi eta S. Pedro aurreko igandean finala izango duen Paleta Txapelketan, zortzi bikote besterik ez dira apuntatu.

Aurten lehen mailakoa besterik ez da izango. Lehenengo Ligaren ondoren, aurreneko lauek jokatuko dute finalaurrekoak.

Bikoteak hauetan dira:

*Illarramendi-Berasaluce
Aranburu anaiak
Sagasti-Martikorena
Patxerrikondo-Iturain
Erkizia anaiak
Erkizia lehengusuak
Bergado-Gontán
Iturralde-Tapia*



Abiatu da Futbito Txapelketa

Aurten, *Orio Areto Futbolak* antolatu du orain arte Xurramurruk antolatzeko zuen Futbito txapelketa.

Guztira 19 taldek eman dute izena eta azpimarragarriena honakoa da: Katxiñaren izenik ez dagoela horien artean. Partiduak larunbatetan izango dira eta, urtero bezala, Zaragueta Ikastetxeen. Honela banatu dituzte antolatzai-leek 19 taldeak.

Batetik, A multzoan: P.P. Orio, Blink, Mapfre, K2-Gure Txoko, B.B+, Txomin, P. Duran, Euskadiko, Quiser, Equipo "X".

Bestetik, B multzoan: Azkenak, P. Bravo, Koasta, Salatxo, Gabon, Oliden, Arkaitz, Kepa, Aia-Orio.

Talde bakoitzetik lehenengo lauek Liga jokatuko dute. A multzoan 10 talde direnez, azken biak kanpoan geldituko dira eta baita B multzoko azkena ere. Gainontzeko guztiek Kopa jokatuko dute.

URBAZTER ASEGURUAK

San Nikolas kalea, 6
Tel.-Fax: 13 33 14

- Transferentziak
- Lizentziak
- Eskriturak
- Penalak
- Errenta Aitorpenak
- Bidoiak, e.a.

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Telefona: 83 06 09

Goxoki
Gozotegi-Kafetegia
AZKUE

Eusko Gudari, 33. Tfnoa: 83 39 20

ANARR /
kirola egiteko eta denbora librerako
arropa eta ekipamenduak
Tfnoa: 83 21 60

ALTXERRI
Jatetxea

Telefona: 83 07 62

Joxe Karrera

"Tristea litzateke karrera antolatzeko jendea kanpotik ekarri behar izatea"

Kirol antolakuntzetaiko 'Oriotarrak' komitean ari da buru-belorri egunero alguazil-lanean ikusten dugun gizon hau.

Nahiko buruhauste ematen ari zaie Euskal Herriko Itzulia Komitea osatzen duten bederatzi pertsoni eta laguntzera hurbildu zaien jendeari; baina, dena bukatutakoan, merezi zuela pentsatuko du, seguru!

Zer dauka zuen taldeak berriz ere Itzulia Oriora ekartzeko? 1984an eta 1992an ere hemen izan baitzen.

Ez dakit. Batik bat bizikletarako amorrua edo grina eta baita gainontzeko kiroletarako ere. Aukera eman ziguten 97an amaiera egiteko, baina Antzuolakoa atzeratzen egin da, eta haien ordez guri proposatu ziguten ea nahi genuen. Udalari proposatu zitzaiotz eta ondo iruditu zitzaien, ta bueno, aurrera.

Nola dihoa antolakuntza?

Nahiko larri. Bi deialdi egin ditugu eta erantzuna nahiko eskasa izan da. Ordurako jendea bilduko dela uste dut, baina azken deialdian 17 bat lagun etorri ziren. Tristea izango litzateke jendea kanpotik ekarri behar izatea. Berdin da datorrena neska edo mutila den, nik ez dakit zergatik, baina neskak gutxiago animatzen dira.

Zenbat jende beharko da?

Gutxienez 60 bat lagun, bidegurutze asko dago eta bakoitzean gutxienez bat egotea komeni da, hala ere,

bakoitzean bat bakarrik triste geratzen da. Zerbait egin behar al zaio Bentako erreidea?

Bai, dagoneko asfaltatuta dago eta karrerarako listo.

Hasieran Udala diputazioarekin harremanetan ibili zen bidearen mantendimendua bere gain hartuko zuelakoan, esanaz, erreidea hori lehenago baserri-bidea zela, baina gaur egun beharbada Aiako bideak baino trafiko handiagoa ibiltzen dueña. Udalak nahi zuen Diputazioak gastuak bere gain hartzea. Azkenengo momenturarte Iraztua date kontua eta azkenean ezezkoa eman dute. Orain Udalak bere gain hartu ditu gastuak eta, nola edo hala, hori txukundu.

Zenbateko aurrekontua da Itzuliak eskatzen duena?

Denera, gutxi gorabehera 10.500.000 pezetan kalkulatua dago, baina seguraski gutxiago izango da. Zuk uste duzu merezi dueña horrelako lanak hartzea, zer bultzatzen zaitu?



Bukatzen denean, astebertera edo, bai. Lasaitu, aurrekontuak ikusi, dena ondo aterra dela jakin, eta orduan bai, pentsatzen duzu *Bai, merezi zian!*

Aurretik buruhauste asko, nola lotu guztia, hesiak nola jarri, jendea...

Aiak ere laster izango dueña Itzuliaren amalera entzun da, ba al dakizu ezer?

Haiek ere desiatzen daude bukaera bat izateko eta laguntza eskatu zutenea gure aldetik zeregin daitekeen jakiteko, baina ofizialki ez dago ezer. 99rako aukera izan liteke, baina goizagi da horretaz hitzegiteko. Nahiko lan dugu hau egiten eta gero, lasaitutakoan, ikusiko dugu.

Itzulia antolatzen dutenek, baldintzarik edo jartzen al dute? Honelako edo halako ibilbidea izan behar du edo besterik...

Etapa bukatzen den herri bakoitzeko arduradunei iritzia emateko aukera ematen zaie, nola gustatuko litzaiken etapa bukatzea etab.

Guk aukera bat proposatu genuen, eta bera aterra da aurreta. Beraiei baldintzak UCIC (Union de Ciclistas Internacionales) jartzen dizkie, amaierekiko etapa motza izatea, arratsaldeko erlojuaren kontrako prestatzeko, baina bestela antolatzailleen araberri egiten da.

Disko-kritika

Orio Kantari

Udaleko Euskara Batzordeak, 'Euskaraz Gazte' programarekin jarraituz, lan berria argitaratu du CD formatoan: *Orio Kantari* izenekoa.

1994. urtearen bukaeran izen bereko musika-zinta bat kaleratu zuen Euskara Batzordeak. Zintak 10 kanta jasotzen zituen eta oraingo CDak, berriz, 24: zintako lehen 10 kantu hiaeak eta beste 14 berri. Oraingo hau, bera, aurreko ahalegin haren osagarri da.

Eskertzeko eta txalotze-ko da ahalegin hau, altxor preziatu bat jartzen duelako herritarren eskuetan: gure tradizioak eskaini dizkigun kanta ederrak —galtzeko zorian zeudenak asko— eta herriz ere gure artean kantzen hasi garenak grabazio hauetik esker. Pieza berriak ere bidaude eta CDak, osoan hartuta, herriko panorama musicalaren ikuspegia zabala eskaintzen du. Bestalde, pozagaria da lan horren inguruaren horrenbeste jende bildu izana; lanordu asko sartu behar dira horrelako proiektua aurrera uteratzea eta talde-lanerako jarrera on hori ez da askotan aurkitzen. Beraz, zorionak guztioi.

CDko kantu berriak euskal folklorekoak dira batzuk —Aita Donostiaren *Bili bili bonbolo*, Iparagirreren *Aran diran, Goizian argi hastian...*—, amodiozko baladak, trikiti-piezak eta, baita



ere, rock-a, txistu eta txalaparta hotsen tartearen.

Oso bertsio zainduetan duak dira ia denak eta, bereziki, kantu zaharrekin egin den lana azpimarratuko nuke: gusto apartekoak iruditzen zaizkit *Galai bat etorri* eta *Gabon kantak*, Salatxoko ahotsen, eta *Aldapeko Maria*, Imanol Urkizuren bertsioan.

Eta laudorioekin hasi nai-zenez, ezin utzi aipatu gabe beste bi, kasu honetan CDan bakarrik agertzen direnak biak: *Lizargatea* eta *Siyahamba*. *Lizargatek* Xabier Su-kiaren bertsioak jasotzen ditu eta, Xabierrekin, ohitura gau-de kalitate handiko hitzak entzuten. Garai bateko irudiak begi bistara ekartzen dizkigu hizkuntza aberats, bizi eta ederrean, eta, hori

gutxi balitz, doinua eta kantu erabat aproposak dira: dudarik gabe, buruz ikasi eta etengabe kantatzen aritzeko horietakoak. *Siyahamba* oso diferentea da. Afrikako doinu bat erabiliz, Salatxo Txikik kanta alai bat eskaintzen digu, bertakoak diruditzen hitzakin eta euskarari buruzko estrofatzeko bat erantsiz. Nahasketu honek ezer onik ekarriko duenik ere ez du ematen horrela adierazita, baina, txikien abesbatzak dantzan jartzen gaitu erritmo alai kutsagarri horrekin. Polita benetan. Zenbait irrati emisoratan entzun dugu kanta hori haur programetan.

Musika zaila Patxi Olidenek jarri diona *Orioko Martxari*; zaila kantatzeko, bestea besle, martxa bat beti eskatzen zaiolako edonork

kantatzeko modukoa izatea. Penagarria, dudarik gabe, jarri zaizkion hitzak: zabarrik eta arretarik gabe egindako bertsok.

Ur handitan sartu naiz eta igerian ondo egin beharko dut. Orohar, uste dut musika-zinta orekatuagoa zela: kalitate maila beretsuko lanak biltzen zituen. CDak, berriz, gora-behera handiagoak ditu: esan dudan bezala, lan batzuk oso onak dira eta beste batzuk, ordea, maila apalxeagokoak. Bestalde, formato berriak ez dio, nire iritzian, lagundu batere: etxe guztietan erreza da irratia-kasetta izatea, baina ez da hain normala CDa irakurtzen duen tresna edukitza, eta, nahiz eta prezio onean jarri salgai, CDak ez du izan zintak izan zuen arrakasta.

Nik CDa eroñera animatu nahi zaituztet. Hala ere, ez baduzue CDa erabilitzko modurik, eskatu lagunen batu grabatzeko. Agian, Euskara Batzordekoak haserretu egingo dira nirekin, trampa txo honekin ez dutelako gas-tuak kitatzeko modurik izango: baina, pentsatzen dut, halen helburu nagusia ez dela hori eta benetan garrantzia duena kantuak ezagutarazi eta ahoz aho zabaltzea dela. Barkatuko didate aldreibeskeria.

● ANA G. DE TXABARRI ●

Txorroskilerok

Xalo totala naizen aldetik, gauza asko dira peto samar sinisten ditudanak; kika edo zotina baldin bidauskat, zazpi urragoska segidan eman, eta pasatu egiten zait; gure etxe inguruari belerik ikusten badut jiraka, badakit luze baino lehen hildakoren bat izango dela gure kalean; ekografia bezain metodo zehatza da emakume haudunaren ibilerari erreparatzea; hankak kanpora begira badabil, mutila; hankak normal edo barrura begira, neska...

Txorroskileroen da, ordea, nire siñesmenik errituena: etxe inguruari txorroskileroren xaramela-hotsa entzun orduko, fijo dakit euria dakarrela atzetzik. Jende asko haserretu egiten da txorroskileroa entzuten duenean. Uda partean, batipat. Ez dago, ordea, haserretzeko motiborik. Nik, behintzat, haietako baten deia entzun orduko, etxeko labana eta guraize amutzan hartu, eta kalera jaixten naiz pozik asko. Aitzakia polita da, trepetak zorroztzen dizkidan bitartean, txorroskilerorekin hitz aspertu bat izateko. Zer axola dio euriak, txorroskilerobatekin hitz egiteko aukeraren aurrean?

Galiziarrak dira nik ezagutzen ditudan txorroskileroguztiak, eta hargatik dakarte, agian, euria. Baliteke. Euri ekarle izan ala ez, nobela osoak tajutu ditut neure kabaletan haien ibilerak, amodioak eta bizi-filosofiak irudikatuz. Haien xaramela-doinuak, berriz, ixtorio izkutu horien oihartzunak dira. Hargatik atsegin zait txorroskileroezin



ANJEL LERTXUNDI

IDAZLEA

hitz egitea, neure idazle ofizioan zerbaiz aurreratu, eta xaramela-doinu horienak bezalako oihartzunak lortzeko...

Oso hizkera eta izakera dotorekoak, nik ez dut inoiz entzun txorroskileroen bezain gaztelania kresal usainik: gailegotik hartutako hitz eta joskera-modiei tonu leun eta eta zilubre kolorea eransten diete. Gailegoz mintza zedila eskatu nion behin gure etxe aurretik pasatu zen bati. Betizu begiratu zidan. Adarra jotzen ari nintzaiola uste zuen.

Txitikan San Martin aldetik etortzen ziren txorroskilerok (Ortzaika aldean errepide nagusia utzita, seguru asko) eta Goiko kaletik behera egiten zuten gero. Ez dakit nola manejatuko diren orain.

Gurera azkena etorri den txorroskilerori ez zaio gure labanaren altzairua gustatu. Lehen, bai, lehen oso onak omen ziren hemengo altzairua nahiz Toledoko, mundu osoan ez omen zegoen hemengo labanak eta guraizeak baino trepetahoberik; igualtsuak, agian bai; hoberik, ez. Orain, berriz, gurea baino askoz temple hobekó altzairua ekartzen omen dute Alemaniako-eta. Gu, berriz, zabartu egin omen gara. Y así, erantsi zuen gurera azkena etorri den txorroskilerok, vivimos el dolor de trabajar mal.

Harro bizi izan dira beren ofizioaz, baina nik ezagutzen ditudan txorroskilerok sufritzen hasita daude gozorik gabeko labana edo puskatzeko arriskua duten guraizeak zorroztu beharrez. Materiale txartarekin lan bikaina ateratzea zaila denez, logikoagoa dirudi marteriale txarra desagertzea, txorroskilerok baino. Logika, ez da, ordea, txorroskilerok beren bide horietan aurki dezaketen lagunik minena, eta alderantziz gertatuko da.

Eta txorroskilerok desagertzen direnean? Nork jo beharko dut labana eta guraize amutzekin? Inori entzungo ote diot txorroskileroen bezain gaztelania kresal usainik? Nork sentiuazikodizkit lana gaizki egitearen mina eta lotsa? Non entzungo ditut xaramela-hotsetako ixtorio gazi-gozoak?

Eta azkenerako gorde nahi izan du dan galderarik terribleena: desagertzen badira, nork ekarriko digu euria?

ZUMINTZA

- Iloapaindegia - Estetika
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

GURE TXOKO

TABERNIA

ARITZAGA KALEA

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko razio bereziak

13 30 14



Beste aldizkari bat kaleratuko da

Lardizabal eskolako ikasleek datorren hilean ateran nahi dute *Lardizkaria* urtekaria. Bertan parte hartu duten hainbat ikasleek aurreratu dizkigute aldizkarian ai-patuko dituzten zenbait gai. Besteak beste, *Elbizaborra*-ri buruzko artikuloa (gogora dezagun zaborrez egindako asmakizunarenengatik saritua izan zirela); sukaldaritzako errezetak, Derrigorrezko Bi-garren Hezkuntzari buruzko, txisteak, martazkiak... Herriko kazetari gazteen hanak ikusteko aukera berehala izango dugu.


Anbulatorioaren ondoko aretoa biltokia izango da

Udal anbulatorio ondoan daukan aretoa txukuntzen ari da. Eguraldi txarra egiten duenerako egokitutu nahi da lokala, jende heldua eta haurrak bertara hurbil daitezten.

KANUA JATETXEA

*Hamaiketakoak,
bazkariak eta
afariak egiteko
kategoriko lekua*

☎ 83 43 22



EZKONTZA, JAUNARTZE
EDO BATAIOETARAKO
LEKU APROPOSA

*Bertako sagardoa eta
etxeko postre bereziak*

SEGA

ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

ARISTERRAZU

Jatetxea

San Pedro ☎ 83 45 21



Mikel etxean, Maiaten bere alaba eta elkarritzetaren egileekin

Mikel Markez

Aiarrok duela urte pare batez geroztik bizilagun berri bat daukagu gure herrian: Mikel Markez euskal kantari gaztea. Gu, Lardizabal eskolako ikasleok, aspalditxo genbiltzan berarekin hizketan jarduteko irrikaz. Horregatik KARKARAk eskainitako gonbidapena aprobetxatu nahi izan dugu gure desioa lortzeko eta, bide batez, elkarritzetatz xo honen bidez, zuek ere pertsona jator hau hobeto ezagutu dezazuen.

● 8. MAILAKO IKASLEAK ●

Nork edo zerik bultzatu zintuen musikaren mundura?

Nere anai batek betidanik izan du kitarra bat etxeen, eta hari ikasi nizkion lehenengo akorde eta trukoak. Berari esker hasi nintzen saltsa honetan.

Gure adineko gaztetxoa zinenean ze motako musika entzuten zenuen?

Musika "heavy" entzuten

nuen gehien bat, nik humai-ru urte zituenean hemen modan zegoen eta.

Noiz hasi zinen jende aurrean kantatzen?

Hamasei urte zituenean, baina lehenengo grabazioa hamazazpirekin egin nuen. Zenbat diska kaleratu dituzu? Horietatik zein izan da arrakastatsuena?

Lehendabizi bakoitzak

bosna kanta zituenean bi maketa grabatu zituenean. Haien izan zuten arrakasta, nahiz ezin den konparatu maketa baten arrakasta edo diska batena.

Aldaketarik somatu alduzu diska horietan?

Uste dut eboluzio bat egon dela, onerako. Gauza gero eta aberatsagoak eginen saiatzen naiz.

Ikusten alduzu zure burua

erderaz kantatzen?

Euskal Herrian euskera gazieleraren aldean galitzale ateratzen denez, nere kompromezu pertsonala dela eta beti euskeriz kantatuko dut, baina Euskal Herritarik kanpo ez daukat arazorik beste hizkuntzatan kantatzeko.

Euskal Herritarik kanpo kontzerturik eman al duzu?

Bai ibili naiz, egia esan ez gehiegi, baina izan naiz Parisen hiru aldiz, Kuban, Estatu Batuetan... eta badut esperantza beste toki batzuetan kantatzeko.

Lanbide honetatik bizitzea erraza al da?

Gaur egun uste dut ez dela erraza inongo lanbidetik bizitzea, baina nik suertea izan dut eta badut aukera egiten dudan honetatik eta kantuaren inguruan dauden beste zenbait gauzatatzik.

Kontaguzu abesti bat nola sortzen duzun, aurrena hitzak, gero musika...

Ez dago formula magikorik. Ez dut era konkretu bat izaten kantu bat egiteko. Denetik egin izan dut, baina normalean hitzetatik abiatzen naiz eta gero horren gainetik musika egiten dut.

Kantuaren hitzak asmatzerakoan zein da zure inspirazio-iturri?

Inspirazio-iturria eguneroko bizitzako edozein ger-taera izan daiteke, baina neurri handi batean lanaren ondorioa izaten da. Maizago sainatzen bagara gauzak idazten aukera gehiago daude abesti politak egiteko.

Aukera duzunean zein musika klase entzuten duzu?

Alde batetik, euskal kan-

tari eta taldeak entzuten ditut, zeren eguneroko bizi-tzan beraietan topo egiten dut hemen eta han, eta jakina, normalean informatua egotea gustatzen zait. Besteik, denetarik entzuten dut, musika klasikoa, jazz-fusion... Bolarak izaten ditut.

Zer duzu nahiago abestu ala abestiak asmatu?

Bi gauzak gustatzen zaizkit, kantuak egitea beti lana da, baina oso pozgarria ere bai, ustez estetikoki zerbait ederra sortu baduzu.

grama bat egiten dut, eta apirilean Lizardi poeta jaio zela ehun urte beteko dira eta hori ospatzeko antolatutako ekitaldi batean parte hartuko dut.

Zure gustoz non biziko zinanteke?

Ni nere gustoz Aian bizi naiz. Ez dut ametsetako beste lekurik oraintxe buruan. Erreenterikoa naiz eta han ez dagoen lasaitasuna daukat hemen.

Kazetari lanetan ere ibilia zara, ezta?

Bai, Euskadi Irratian ko-

"Nire gustoz bizi naiz Aian, ez dut ametsetako beste lekurik"

Bestalde, baldin eta jendearekinkonkretatza lortzen baduzu, kantaldiak ematea ere oso polita da.

Ipuin kontalariarekin bat-terajarduten zara askotan elkarlanean, zer dela-eta?

Beno, ipuin kontalariarekin, poetezin eta beste jende dexenterekin ere ibili izan naiz. Joxe Mari Karrere ipuin kontalariarekin ibiltzen naiz tarteka, uspaldiko laguna dut, eta lagun minak izateak ikus-kizun naturalak ematen laguntzen du. Gero Alaitz, Oiartzungo trikitilaria ere batzen. Esperientzia aberasgaria izan da.

Aurrera begira zein dira zure asmoak lanerako?

Oraintxe musika ikastaro batzuk emateko deitu didate, eta horiek prestatzen ari naiz. Astero Herri Irratian musika eta elkarritzeta pro-

laborazio bat egiten nuen goizeko programa batean. Egin-en ere idatzi izan ditut artikuluak. Euskaldunon Egunkariako kolaboratzaile izaten jarraitzen dut, eta noizean behin elkarritzetaren bat enkargatzeko deitzen diate, musikari buruzkoak normalean.

Aita izateak ezertan alda-tu al du zure bizi-modua?

Dudarik gabe, nire bizi-tzan gertatu den aldeketarik fuerteena izan da, gehien bat biziitzako estiloan.

Aita izan aurretik erraza-go hartzen nituen hainbat erabaki, esate baterako, bat batean sortzen ziren planak bi aldiz pentsatu gabe egiten nituen. Orain, berriz, erabakiak denbora gehiagoko au-rerapenarekin harti behar ditut.

Aiako leihoa

Gure haurrak nora?

Besterik gabe, lau urte daramatzagu ikaskunta-za zerbitzu berriaren zain. Harrigarria ezta?, ba bai, lau urte luze izan dira eta bitartean gauzak dexente aldatu dira.

Dena dela, gaur ez noakizue lau urte hauetaz mintzatzen, hainbeste tira-bira dakartzan "LOGSE" famatuaz baizik.

Hainbeste denbora pasa ostean, gutxienez ondo prestaturiko sistema bat espero beharko genuke, ezta?. Baina, egia esan ez dirudi hala denik. Guri oso garbi adierazi digute geure haurrek Aiatic kanpo ikasi beharko dutela, baina non? Zarautz nahiz Orioko ikastolak iada hasi dira berritze lanak egiten baina iniziatiba oso garbia duten bitartean, eskola publikoak apur bat galduak ikus ditzakegu. Benetan zer gertatuko den ez dute oso garbi.

Honenbestez gurasoak burua galdu beharrean daude. Zer litzateke komenigarriena?. Lehen aukera, orain arte bezala sistema publikoaren konfidatzen jarraitzea litzateke. Bigarrena, ostera, gure haurren "traslado" bat egitea, sistema publikotik pribatura. Besterik gabe beren buruak hobeto prestatzen ari direlako. Baina ez al da geure seme-alaben (eta azken finean geure) eskubide bat euskaraz eta sistema publikoaren bidez hezkuntza primario oso eta konpetente bat jasotzea? Berez hala izan beharko litzateke behintzat.

Ni ez noa esatera Aiatic kanpo ikastea komenigarriena den edo ez. Baina dena den, esperientzia hori bizi izan eta gero, esan dezaket beharbada egokiena litzatekeela. Honela, haurrek Aiatic kanpoko beste giro bat ezagutuko bait dute, orain arte kasu askotan gertatzen ez zen bezala, haur askok hamalau urte bete arte ez bait zuten beren inguruko talde txiki hori besterik ezagutzen. Tamalez, egia da, baita ere, haur askok, kanpora ikastera joan behar izaterakoan, beren etxeak goizeko ordu txikietan utzi eta arratsaldea ondo aurreratu arte ez liratekeela etxera iritsiko. Baina, dena den, nere ustez eta orohar, erabaki zuzena da LOGSE-ak proposatzen duena.

● MANEX REKARTE COWIE ●



Odola emateko aukera anbulatorioan

Apirilaren 30ean odola emateko eguna da izango da. Beti bezala, herriko anbulatorioa etorriko dira Gipuzkoako odol emaileen elkartekoak; beraz, odola eman nahi izanez gero anbulatorioa joan besterik ez duzu arratsalde horretan.

Eliz atarian dagoen San Estebanen irudia konpontzen ari dira

San Estebanen taila, eliza atarian egoten dena, jeitsi egin zuten orain dela egun batzuk txukuntzeko astoan.

Urteen eraginez eta hamaiaka baloiada jaso eta gero, irudia nahiko hondtua zegoen eta konponketa beharrean omen zegoen. Baino, dena dela, laisterizango dugu berriz ere bere leku berrituta.

Aste Santuko ospakizunak

Egun berezi hauei hasiera emateko asteazkenean konfesio orokorra izango da gaueko 9etan. Ostegun Santuan Meza Ixila arratsaldeko 4tan izango da, eta bi ordu beranduago Meza Santua eta Prozesioa.

Ostiralean ospakizunak oso goiz hazten dira, goizeko 5etan, kalbarioak egiten baitira elizatik kanposanturaino, eta 7:30etan berriz, Iturriotzean, Funtzioa, berriz, arratsaldeko 6etan izaten da. Bertan irudikatzen da Kristoren jeitsiera gurutzetik, eta gero prozesioa egiten da aingeruak tartean direlarik. Bukatzeko, larunbatean Gloria Meza ospatuko da arratsaldeko 8etan, ura eta ikatza bedeinkatzearekin batera.

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak
Bidaltu eta ezkontzetzara edo sagardotegira joateko

☎ 13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 37 67



Pat Cowieretkin hitz egin ezazu
Eusko Gudari, 5

13 21 31

TXUKUN

Lorazantza

Basoetako esplotazioa eta lorralana

Tfnoak: 13 07 69 / 908-17 93 16

PORTU ERRETEGIA

✓ Despedidak
✓ Bataioak ✓ Jaunartzeak
Santio erreka auzoa
☎ 83 57 38

Antton Sarobe

Kamioi zerbitzua,
ganadu eta abarretarako

— — — — — — — — —

Telefona: 83 48 59

Ana

G. DE TXABARRI



Argazki-makinaren leihotik

● JABIER ZABAleta ●

KARKARAn urtetan gabiltzanoi zaila zaigu imajinatzea ere zer izango lizatekeen gure aldizkari hau Ana Mari 'Kolon Txiki' gabe. Sarritan esan diogu Anari —erdi broma, erdi serio— bera dela KARKARAko 'inpreszindible' bakarra: argazkiak atera, errebelatu, ordenadorean egokitu..., dena berak egiten baitu; eta aldizkariaren bestelako lanetan aritzeko ere beti prest, gainera.

Anak historia ikasi zuen Zaragozan eta irakaskuntzaren munduan ari da karrera bukatu

zuenetik: haur txikiekin hasieran eta gazteekin, gero. Gaureguneskolak ematen ditu Legazpiko institutuan. Hasiera-hasieratik ari da argazkilari-lanak egiten KARKARAn eta ederkil irabazia dauka taldekieeon estimazioa. 50. zenbakihonek aukera egokia eskaini digu Anarekin Oriori eta KARKARArri buruz hitz egiteko. Argazki-makinaren atzealdetik aurrealdera pasa dugu, behingoz, eta, irribarrea ezpainenetan duela erantzun dio Iñaki Iturainek eta biok prestatutako galdera-sortari.

Zazpi urte KARKARA sortu zela. 50 zenbaki. Zer dakarkin horrek gogora?

Batez ere hasierako giro hura. Oso jende desberdina gintuan, formazioz eta izakerraz, eta gogozi heldu genioan aldizkaria egiteko lanari. Ezer ez genian: ez lokalik, ez azpiegiturari... baina, halu ere, oso lan-giro ona sortu zuan.

Gogoan diat, baita ere, gauza denak eskuz egin behar genituera eta gero gure lana beste batzuen eskuetan utzi, batere segurantziarik gabe zer aterako zen. Normalean, ateratzen zen aldizkariak ez zian inolako antzik guk pentsatuta genuenarekin. Diferentzia handia duk hori: gaur egun guk kontrolatzen diaguprozesu osoa eta ateratzen den KARKARA guk nahi duguna duk. Egiten ditugun hankasartzeak guak dituk eta, jakina, zerbaite onik baldin badu ere, guk hala egin dugulako duk. Kalitatearen erantzukizuna gurea duk orain erabat eta lehen ez zuan horrela izaten.

Zertarako eta nola sortu zen KARKARA? Eta hi zergatik sartu hintzen saltsa horretan?

Bueno, bakoitzak bere motibazioak izango zitien baina nik nireak azalduko ditiat. Euskarak ofizialtasuna lortua bazuen ere, ez zuan hasieran lan handirik egin euskara hori betiko euskaldunengana iristarazeko. Eskoletan aurrerapauso handiak ematen ari zituan baina horren eragina ez zuan gero eskolaz kanpoko jendearen gana iristen. Gure herrietako euskaldunek ez ziaten euskara irakurtzeko apena aukerarik eta hutsune hori betetzean sortu zituan herrialdizkariak: euskara gertatzeko euskal hiztunei. Oso joera arriskutsua ari zuan,

gainera, zabaltzen: euskaldun zahar askori arrotza egi ten zitzaioa eskoletako eta komunikabideetako 'euskarra berri' hori. Ez ziaten identifikatzen beren betiko euskararekin eta izugarrizko dibortzioa zegoan. KARKARAk ezer onik egin badu, horixe duk nire ustez: orain Orioko jendeak bazakik ez dagoela horrenbesteko alderik hitz egiten duten euskararen eta KARKARA idatzita ikusten dutenaren artean. Zubilana egin diagu, nolabait esateko.

Bestalde, bistan duk bertako informazioa zabaltzeak duen garrantzia. Herri-aldizkariet betetzen ditek komunikabide handiek bete ezin duten esparrua: herriko kontuak azaltzea, herriideen berri ematea... Gertutasun hori duk jendeak gehien estimutzen duena eta,

gainera, jendeari bere hizkuntzan ematen bazaio... are eta hoheto!

Etiketak jartzeko zaletasun harrigarria zagon gure herrian. KARKARA ere jartzen zizkioten: batzuentzat HBzale amorratuak, besteentzat, berriz, EAJ aldekoak... ez da erraza, ez?

Ez, batere ez. Hala eta guztiz ere, uste diat KARKARAk izan duen azierto handienetako bat hasieran aipatu dudana dela: horren jende desberdina bildu izana proiektu bat gauzatzeko eta kapuz izatea aurrera egiteko inor kampoan utzi gabe. Iritzi eta jarrera desberdinak ditugu baina jakin diagu gure proiektuarekin aurrera egiten eztabaidea eta haserre guztien gainetik. Talante ireki hori duk karkarakideon alde positiboena.

Hasieratik garbi izan dia-

gu, bestalde, ezin geniola etiketarik jarri geure buruari. Bestela jokatu izan bagen, aspaldi desagertua zegoan KARKARA. Bide antzua duk hori.

Orain dela gutxi esan zidanan batek sekulako desilusioa hartu duela KARKARAkin ikastola-eskola arazoaren aurrean aukera jakin baten alde egin omen dugulako...

Ez natorrek bat. Nire ustez KARKARAk oso zuzen jokatu diik kontu horretan. KARKARAko kideren batetik iritzia eman duenean, bere izenean egin diik eta izenarekin azaldu duk. Informazioa eman dugunean, berriz, beti saiatu gaituk ahalik eta justuen eta zehatzen jokatzen, inolako posizionamendurik gabe. Herritarrei hori zor zaielako, besteak beste.

Nolanahi ere, hik beti izan dun eskola publikoaren aldeko joera, ezta?

Bai, dudarik gabe. Beti defenditu diat euskal eskola publiko bakarra behar dugula eta beti izan diat horren aldeko kezka. Irakaskuntzamundua nahiko ongi ezagutzen diat. OHOn hasi ninduan eskolak ematen, haur txiki-txikiek eta gero pasa ninduan institutura. Eskarmentu horrek, batez ere haur txikiek izandakoak, oso ikuspegi zabala eman zidak.

Aipatu nahi nikel, baita ere. Legazpiko institutuan ematen ditudala eskolak eta zentro hori orain dela 10 urte sortu zela erreforma prestatzen hasteko.

Kamararen atzetik gauza asko ikusten ditun. Gogoan geratu zaizkinanak? Anekdotarik?

Normalean oso-oso gustora sentitu nauk KARKARAko argazkiak egiten. Ez argazkizale naizelako bakantrik, baizik eta jendearen ja-



"Aldizkarian oso jende desberdina dabil eta hori horrela izan da hasiera-hasieratik"

rrera beti oso ona izan delako. KARKARAko dela esanez gero, jende guztia azaltzen duk prest eta pozik jartzen duk listo arguzkirako. Bestalde, aukera eman zidak jende mordoa ezagutzeo.

Anekdata asko kontatuko nitiak zazpi urte hauekoak. Aipatzeko modukoa duk, esate baterako, —lehen adierazitako jarrera on hori erakusten duelako— Gozategi anai-arrebei argazkia ateratzeko zita egin nuenean, trikitixa eta guzti azaldu ziela Kofradia azpiko txoko horretara —herrian gehien maite dudan txokoetako bat, bide batez esanda— eta, argazkiak egiten ari nintzela, erromeria txiki bat montatu zela bertan.

Zertan aldatu da hire hiriaren ikuspegia, KARKARA hasi hintzenetik?

KARKARAko nigan era-gin ikaragarria izandik. Pentxa ni 13 urterekin joan nintzela herritik eta 9 urte pasa nituelakoan ikasten. Tarte horretan, herriarekiko lotura eten egin nian, neurri batean, eta euskara bera ere asko galdu nian. Gero, lanean hasita ere, Oriotik kanpo bizi izan ninduan hainbat urtetan eta, KARKARAren hasi ginenean, jarri ninduan Orion bizitzen. Gogoan izango duk aldizkariko lehenbiziko bilerak hemen bertan egin genituela, nire etxeko sala honetan. KARKARA jaioberriak sala hauxe izanzian seaska. Galdu-tako lotura horiek berreskuratzeko garantzi handia izan dik niretzat KARKA-



“Karkarak eragin ikaragarria izan du nigan. Herriarekin erdi galdua neukan lotura berriz sortzen lagundu dit-eta”

R.Ak.

Euskara dela-eta, aldatu alda ezertan Orioko egoera urte hauetan?

Oraindik dauden arazoak eta ukatu gabe, nik uste orain naturaltasun handiagoz bizi dugula euskararen gaia.

Jendeari normala iruditzen zaiok orain, esate baterako, KARKARA guztiz euskaraz izatea eta ez gaituk konturatzten horrek berak ze errezelotz sortzen zituen ha-

sieran jende askorengan. Jende heldu askok esan izan zidak zai-zai egoten dela KARKARA noiz aterako; eta ateratzen den ostiral horretan bertan KARKARAren ohera sartu eta bukatu arte ez duela uztzen. Uste diut horrek —arrakasta horrek— adierazten duela, beste ezerk baino hobeto, euskararen alorean egin ditugun aurrerapausoen tamaina. Euskararekin harreman gozo hori,

berotasun eta poz hori... hori KARKARAk sortu dik Orion. Berak irabazi dik leku hori oriotarren bihotzean. Eta kenduiok orain KARKARA Orioko jendeari!

Bitan-edo esan dun aldizkariko lan-taldean oso jende desberdina dabilela. Zer moduzkoa da harremana?

Ona, oso ona. Batez ere lortu dugulako konfidantza-maila nahikoa elkarri esan beharreko denak esan eta, hala ere, momentuko hase-break kenduta, elkarrekin lanean segitzeko. Taldean aldaketak izan dituk (hasierako lan-taldeetik 4 pertsona geratzen gaituk), baina hori ez duk aldatu. Ikusi besterik ez zagok aurten lan-taldera sartu zaigun gazte-jende berria ere batere problemarik gabe hasi dela lanean, gutako beste edozein bezalaxe.

Bestela... haserrealdiak beti egoten dituk, beti da-goclako bateon bat jenio biziagoa duena edo petralxeagoa dena, baina...

Izenik emango?

(Barrez) Ez, ez, utzi ezak horrela. Okasiorik ez diagu behar-eta!

Hi herorri tratu errazekoa haiz: normalean gozo; baina piper-puntua ere badun, kastakoa al da?

(Barrez, berri) Bai... eta bi aldetatik gainera. Aitaren aldeko familia oso jende su-tsua duk, eta purrusta errazekoa. Beste aldetik, berri, amona Justia zenaren ezinegona eta sua nabari zaiok amari eta, akaso, niri ere bai, batzuetan.

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

Iñaki Garate

Aseguru-agentea

Eusko Gudari, 14 (atzek.)-3.

C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA. S.A.

Aseguruak

Telefonia: 13 46 07



Tangerreko katedraleko organo hau jotzen ari zela, ondoera sentitu eta bi egunetara hil zen, orain ehan urte, Aita Lertxundi

Aita Lertxundi: Pobreen Aita

Tolosan Aitzol euskaltzalearen jaiotzaren mendeurrenaren ospatuko dute martxoan, Zarautzen, berriz, Lizardi olerkariarena apirilean. Orion beste euskaldun handi baten heriotza gogoratu dugu; martxoaren 8an 100 urte bete baitziren Aita Lertxundi oriotarra Tangerren (Maroko) hil zenetik.

Omenaldi gisa kongresu bat antolatu zuten Afrikako iparraldeko kostaldean dagoen hiri hartako frantziskotarrek. Lertxundiren bizitza eta obra aztertzeko. Lau oriotar han izan ginen, haiek konvidatuta, alkatea, bikarioa, kultur zinegotzia eta KARKARA; osasun ahudeko gizon hark egindako lan ikaragarria, edozein harritzeko modukoa, ikusten eta ikasten.

● IÑAKI ITURAIN ●

Kongresura gizon-emakume jakintsu asko bildu zen Aita Lertxundiren obra hainbat ikuspegitatik azertzera: Aita Santuaren ordezkariden Nuntzio Apostolikoa; Tanger eta Rabatko gotzaiak; Chipionako (Cádiz) misio-ctxeko nagusia; Granada, Bartzelona, Madril, Tanger, Rabat eta Casablancako unibertsitateetako irakasleak; historialariak, hizkuntzalariak, filosofoak, teologoak, arabistak... Kongresuan hamahiru hitzaldi izan ziren; erakusketa bat zabalduz; eta oriotarraren izena izango duen Fundazioa

inauguratu zuten; haur atzerrautentzako eskola izango dena batetik, eta kultur topaleku erlijio eta jatorri desberdinako jendearentzat, bestetik.

Ospakizunek jarraipena izango dute abuztuan Chipionan eta urrian Compostelan.

Abuztuan Chipionara

Cádizko kostaldean da- goen Chipionako fraile frantziskotarrek konvidatuta,

Oriotik talde bat joango da autobusez, abuztuko lehen astean. A. Lertxundiren mendeurrenaren ospakizunetara. Fraileek etxe bat daukate Chipionako hondartzan ondoan, 60tik gora lagunentzako tokiarekin, eta oriotarrontzat gordeko dute. Bakotzeko eta eguneko 3.000 pta. aterako da, ohea eta otordu guztiak barne. Hango egonaldia bospasei egunekoa izango da eta bidaia "turistiko-kultural-erlijiosa" izango da; aukera emango du inguru hartako baztiarak ezagutzea. Bidaia abuztuaren Setik 11ra izan-

go da. Udalak autobusa jarriko du bidai horretara joan nahi duten oriotarrentzat eta laister zabalduko da izena emateko epea.

Azaroan Orion

Azaroan Kultur-Etxea zabalduko da eta badirudi A. Lertxundiren izena jarriko diotela, nahiz oraindik erabakigabe egon. Ospakizun gisa Tangerreko erakusketa ekarriko da, hitzaldiren bat izango da eta ETBk hiru meza emango ditu Oriotik.

Tangerreko Kongresuan entzundako esaldirik esangurantsuenak

Lertxundik berak esandakoak:

- Pobre izatea da nire nahia, pobre bizitza eta pobre hiltzea
- Hizkuntza ikastearren helburu bakarra bertakoekin harreman estuan jartzear da
- Arabiera ere kristauen hizkuntza da
- Gramatikaren helburua ez da marrokiarrek gaztelera ikastea, españolek arabiera ikastea baizik
- Atzerrira nhoa (Maroko utzita Espaniara joateko agindu ziotenean Madrilietik)

Lertxundiren gainean bestek esandakoak:

- Gogor egin zuen esklabismoaren kontra, garai hartan, artean, indarrean zegoena
- On besterik ez zuen egin mundu honetan, Jesukristok bezala (Tangerreko gotzaiak)
- Bere medizina eskolatik atera ziren lehen medikuak
- Tetuaniak Espainiarako atzerrira atera zenean jendea erruz bildu zen eta bere atzetik joan hiritik atera zen arte
- Hil zenean Tangerreko musulmanek beren hilobirian lurperatu nahi zuten



Kongresuan A. Lertxundiren ama-hizkuntza euskara zela aldarrikatu zuen Joxe Migelek haren hilobiaren aurrean



Haur atzeratuen alde lan egindo duen Fundación Lertxundi zabaldu berriaren aurrean, oriotarrak

- 'Eman ta zabal zazu munduan frutua': hori egin zuen A. Lertxundik herriaren eta gizartearen zerbitzuaren lan egina, nori begiratu gabe, moroa edo kristaua izan. D. Andres.
- Ez zen misiolari konbentzionala izan, ez zen batere kolonialista, errespetoa zien marrokiarrei eta haien askatasunaren alde egin zuen. Joxe Miguel Makazaga
- Gizon irekia izan zen; Tangerren konturatu naiz Orioko jende askoren jarrera oso itxia dela, zabaldu egin beharra dago. Joxe Miguel Leunda

Tangerren esandakoak laburbiltzeko, beste era bat, A. Lertxundiz esandako adjetiboak erakustea da: apala, irekia, kementsua, nekagaitza, aintzindaria, aurterakoia, suspetzailea, tolerantea, bakezalea, jakintsua, argia, errukitsua, askatzalea, sentibera...

Oriotikan joan zinaden
hemen utzita sendia.
beti lanean igaro zendun
mundu hontako aldia,
korritu zendun Maruekoseko
desertuaren erdia,
eginez beti gelditu gabe
pobreentzat lan handia

eta sentinez barru-barruan
pobrearen tragedia.
Aurten bete da hil zinanetik
justu-justu gizaldia,
A. Lertxundi zabaldu zendun
oriotarron irudia,
zero altutik jaso ezazu
guztioan omenaldia.



Gure
herriko
garagardoa

iTZiAR
Kirolak
☎ 83 31 03

BERTSOAK

Zenbaki honetako atal hau osatzeko Aitor Sarasuari eskatu genion bertso batzuk egiteko, eta ondorengo hauek dira 50. zenbaki honetarako prestatu dituenak.

-1-

Herriagatik neukan
kezka eta pena
bapatean ordea
argitu zait dena:
futbolerako dugun
garra ta kemena
hori da euskaldunok
biltzen gaituena,

-2-

Eskerrak telebistak
badaukan ardura
beti aberasteko
guztioen kultura
hola jakiten dugu
preziso den hora:
zein heldu den berandu
entrenamentura.

-3-

Norberak izerdirik
nahiz ez bota bate
kirol kontsumorako
bada borondate
kezkak ahazteak ez du
egiten ez kalte
norbait hil dute baina
Realak enpate,

-4-

Kontu kezkarriak
gordez galerazi
“betegarria” dena
gustatu arazi
beti arduratuta
ezin leike bizi
zazpirehun preso baina
Bilbok irabazi,

-5-

Aurten daukagu berriz
Realan bolada
liga Espanolean
hamargarren, hara!
gure askatasuna
nahikoa zaila da
baina UEFAra igual
iritsiko gara.

-6-

Zein ote da guk egin
dugun pekatua
berriz ere herria
dago kezkatua
badaukagu arazo
madarikatua:
Karpinek sugur puntan
daukan urratua,

-7-

Euskal hedabideek
luzatuz eskua
futbola dugu beraz
lokarri estua
kontua ez legoke
gaizki pentsatua
mutur bat ez balego
Madrilen lotua.

AITOR SARASUA

Alta Lerkundi, 33
Telefonoa: 83 28 55

* KAFETEGIA
* IZOZKIAK
* CROISSANTEGIA

*pasteleriko
enharquak
hartzen dira*

Autoak aukera
onean

AIA ORIO
Telefonoa: 13 04 38

Kaixo Edaritegia

Ogitartekoak
eta pintxo bereziak

Tlfnoa: 13 07 73

LAIARI

izoziak

Eusko Gudari, 42 Telefonoa: 13 42 64

Shock!

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Of. 1 T 13 22 77 ORIO

Errota Zahar

Baserriaren izenak adierazten duen bezala, garai batean errota bat zegoen inguru hartan, orain Errota jatetxea dagoen tokian. Eta izen hori hartu dute horko hiru baserriek; Errota (gaur egun jatetxea), Errota Etxe eta Errota Zahar. Errota jatetxeak kanpoan dituen mahaikak bertako errotarriez eginda daude.

ANA ITURAIN

Errota Zaharrera iritsi, eta baserrian bizi diren bi emakumeek hartu gintuzten, bai ondo hartu ere!

Felisa eta Anttoni ez dira Errota Zaharrean jaoak, bertara ezkondua baizik. Felisa, amona, Aiako Aialde Txiki baserriko da eta Anttoni Elkanokoa.

Baserrian, Felisa, Anttoni, honen senarra Ramon eta hauen seme gazteena bizi dira.

"Bizimodu gogorra"

Errota Zaharrekoek baserriaren martxari eusten diote oraindik, nahiz eta bizimodu gogorra dela esan. Semeak ez du baserrian jarraitzeko asmorik. Aitorrek, bere bi arrebek bezala, nahiago du kanpoan lan egin. Momenutz lanik gabe dago, lehen Zaraunten aritu zen lancan. Felisak esan bezala: "baserria gogorra da; ganadua egunero gobernatu behar da, eta gazteak errezago nahi du, eta arrazoia du".

Ikuiluan hamalau behi eta hamalau txahal dituzte eta oiloak ere bai. Soroak lan handia eskatzen duenez gero gutxiago lantzen dute orain. Batez ere etxerako, nahiz eta udaran dendetan saltzekoere izaten duten.

Anttoni egunero etortzen da Oriora esnea partitzera. Lehen lan hori Felisaren ardura izaten zen eta hogei urtetan ibilia da Orion esnetan. "Orain errezago egiten da, kotxez eramatzen baita. Ni

hasieran astoarekin joaten nintzen, eta gero eskukarru txiki batekin. Neguan ez zen giro izaten".

Baserri gehienetan ez bezala, oraindik ere astoa dute Errota Zaharrean. Normalean larrean ibiltzen da, eta patata egiteko erabiltzen dute.

Felisa, orain astean behin etortzen da Oriora, mezatarra. Handik ateratukoan hamaketako egiten du Zaharren Babes lekuan, eta heziketa kontu guztiak dakizki.

20.000 durotan erozi zuten baseria

Baserria orain dela 45 bat urte erozi zuten, hogei mila durotan. Garai hartarako diru

asko zen eta kostata bildu zuten, "Zintzo jokatu behar izan genuen, ez oraingo gazteek bezala".

Aldape, Olazkaga Berri eta beste hainbat baserri bezala, Errota Zahar, Endaia plazako etxearen jabearena zen eta hari erosiz zituen.

Felisa eta Anttoni oso gusztua azaltzen dira baserriak duen egiturarekin. Sukaldea, egongela eta lau logelak behiko solairuan daude, eta beraz ez dute gora eta behera jardun behar geletara joateko. Goran, ganbara dute barrunak eta abar gordetzeke. Ikuilua, berri, behean geratzen da eta horri esker euli gutxi izaten dute eta sala beromantentzenda. Kanpoaldea, Anttonik pintatu berria du eta oso polita izaten du, dena loren apainduta.



Felisa eta Anttoni pintatu berria duten baserriaren aurreko aldean

Julen San Sebastian Arregi,
otsailaren 23an

Maider Manzanas Agirre,
martxoaren 7an

Xabier Makazaga Larretxea,
martxaren 14ean

Aian

Xabat Mugika Amendariz,
otsailaren 23an

Juan Carlos Begiristain Puertas
eta Mari Jose Lopez Moran,
martxoaren 2an

Joakin Alberdi Sarasua eta Eli
Manterola Arostegi, martxoaren
9an

Patxi Sarasua Salsamendi eta
Silvia Esnal Rionda, martxoaren
23an

Aian

Ez da ezkontzarkik izan

Hildakoak

Kontxita Mugika Imaz, 'Itsaib-Berri', otsailaren 28an, 63 urte.

Inaxi Izeta Iñarra, martxoaren
7an, 81 urte.

Aian

Jose Maria Rezabal Huegun,
martxoaren 4an

orio

Balea Elkarteak

*Bertso-afariaren ideia bururatu zitzaigunean
Baleakoengana jo genuen. Bai asmatu ere,
gustoren gustoz hartu balkintuzten eta, berez,
gurioso zalla iruditzzen zitzalguna, erabat erraza
izan da halekin.*

*Beraz, ez zorionak bakarrik, balzik eta gure
eskera ona, bihoz-bihotzez: Baleari lokala
uzteagatik eta, Anbrosio eta bere laguntzaileei,
halako afari gozoa prestatzeagatik.*

orio

Lotsatle!

*Herrian Galdezka atala osatzeko
arduradunak keja bat ekarri digu: jende gutxi
animatzen dela galderai erantzutera eta
argazkietan azaltzera, alegia.*

Ez da hainbesterako!

Mesedez, hurrengoan, baietz esaiozue.

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

Turbide, 11 Tfnoa: 83 17 74

daddy

Udaberriko
arropa berria

Estropalari kalea, 12 - Telf. 132816 - ORIO

LIZASO ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ☎ 83 07 84
Alta Lenxundi, 6 ☎ 13 33 01

ITURAIN
estankoia

Aritzaga Plaza ☎ 83 08 28

ertza

Teléfono: 83 09 29

Orain dela 25 urte...

1971ko otsailean kirola izan bazeen nagusi, martxoan, berriz, kultur alorreko ondorengo berriak izan ziren aipagarrienak. Nahiz eta Orion ez ziren izan, bi oriotar izen protagonista.

✓ Manuel Lasarteri omenaldia egin zioten otsailaren 19an, San Jose egunean, Donostiako Astoria zinean. Jendez gainezka zegoen aretoan bertsolari hauek hartu zuten parte: Uztapide, Lizaso, Lazkao Txiki, Xalbador, Arozamena, Azpillega, Agirre, Lazkano eta Gorrotxategik. Bukaera, Manuel Lasartek lau bertso abestu zituen eskainitako omenaldia eta egin zizkioten opariak eskertuz, eta oso une hunkigarria izan zen. Omenaldia bukaera emateko 260 lagun bildu ziren Urbia jatetxeen.

✓ Benito Lertxundik 'Ez dok amairu' taldeko beste kideekin batera kontzertua eskeini zuen. Hauek ere Astoria zinean. Oso arrakastatsua izan zen kontzertuan Benito Lertxundiren Txori txikia abestiak txalo ugari jaso zituen. Donostian eskainitako kontzertuaren ondoren 'Ez dok amairu'koak Bartzelonara joan ziren.

Kiroletako berriak ere izan ziren:

✓ Domingo San Sebastian oriotarraren mandoak eta

Igeldoko Lizarazuren zaldiak dema desafio bat jokatu zuten 600 kiloko harriarekin Oiartzunen. Irabazleak 20.000 pezeta eskuratu zituen.

✓ Jose Luis Korta Alemaniara joateko prestatzen ari zen, han entrenatu behar baitzuen Europako txapelketarako. Bestalde, Patxi Sarasuak jakinarazi zuen Orioko "mobileko" estropadak abuztuaren 8an izango zirela, eta Cambridge eta Oxford ez zirela izango; hauen ordez, munduko esklifeko arraunlaririk onenak ekartzen saiatuko zirela.

✓ Arraun munduarekin lotuta Antonio Camposek, orduko klubeko presidenteak, 1972rako Orion Gipuzkoako Arraun Eskola eginda izango zela esan zuen. La Voz de España egunkarian planoak eta guzti ageri ziren, baina azkenean, ondo dakigunez, ez zen egin.

Beste era bateko albistea ere izan zen. Martxoan, soldaduzka egitera joan behar zuten 71ko kintoak neutrutu zitzuten udaletxeen. Horien artean altuena Martin Perona Lertxundi izan zen (1,74 cm eta 70 kilo i'erdi), bajuena Jose Angel Arruti (1,56 cm eta 61 kilo). Pisurik handiena Jose Luis Arrutik eman zuen (84 kilo).

Ibai-ondo
Supermerkatua
Telefona: 83 47 50

Carmen
ARRAINDEGIA
.....
Telefona: 83 05 37

TXOMIN
arraindegia
Telfno: 83 27 47

TALAI
AHOLKULARIAK, S. L.
ASESORIA:
FISKALA, LABORALA
JURIDIKOAK, KONTABLEA,
DIRUA AURREZTEKO
Iñaki Olariaga Larrañaga
Eusko Gudari, 50-B, 1.E Telefaxa: 13 37 20

MAPFRE
ASEGURUAK
✓ Osasun laguntza
✓ Etxeak erosteko
finantziajioa
✓ Inbertsio fondoak
✓ Jubilazio planak

OPITZ
Oinetakoak **830089**
ZASS
LEHENDAKARIA
ESKERTZA
MANTUA
GOBERNUA
PERIODIKERIA
Santurtziko Zientzia
Kultura
Institutu
27

nire honetan

Tabakoa erretzea kaltegarria da

Tabakoa erretzea oso txarra da osasunarentzat. Erretzaileok ere badukigu hori, jakina, baina beste hainbat gauza ere kaltegarriak direla eta gure burua justifikatzen saiatzen gara. Gainera nire helburua ez da tabakoa eta erretzaileen aurkako kampaña egitea. Ez horixe! Nire asmoa, Ameriketas gertutako anekdotu bat kontatzea da.

Suediako neska gazte bat czagutzeko aukera izan nuen, ni bezala "au-pair" gisa zegoena. LANA bukatutakoan kafe bat hartzen joateko ohitura genuen. Gure bizimodu, arazoak eta beste hainbat gauzari buruz hitz egiteko eta, bide hantz, elkar czagutzeko. Zigarroen kea ere lagun izaten genuen solasaldi luze haitan.

Baina, egun batean, oso kezkatuta zegoela antzeman nion neska suediarri,

— Oso larrituta ikusten zaitut gaur. Zer duzu?

— Atzo, ustekabean, nire gurasoak etorri ziren ni bisitatzera, amak gaur jakin du tabako erretzailea naizela, eta izugarritzko disgustoarekin dago.

Erabat harrituta geratu nintzen. Ezin nuen oso ondo ulertu 23 urteko lagunari gertatutakoa. Tabakoa erretzea hainbesterainoko disgustoia emalekoia ote zen galdezen nien nire buruari. Eta, gainean, adin horrekin!

Hala ere, gure eguneroko solasaldiarekin jarraitu genuen. Eta, halako batean, nire lagunak gogoratu zuen. Suediatik etorritako gurasoek erregaloak ekarri zizkiotela: aspaldian probatu gabeko txokolatea, liburuak, diskak... eta Suediako kondoiak!

Ez nekiend ondo ulertu nuen, hasiera batean pentsatu nuen ingelessez bestelako esanahia izango zuela, eta ez nintzen ezer galdezen ausartu, baina ezpada ere. Baino, oso kontentu ikusten nuen, eta esaten ari zitzaidan, Suediako kondoiak Amerikakoak baino askoz hobeak zirela.

Oringo honetan, nire harridura aurpegia askoz ere nabarmenagoa zen nonbait; eta galdezu zidan:

— Miren, zer gertatzen zaizu?

Nik eskatu nion berriro ere errepikatzeko esandako, iruditzen zitzaidala ez nuela oso ondo ulertu kontatzen ari zena.

Baina, bai, ondo ulertu nuen. Gurasoek Suediatik kondoiak ekarri zituzten aspaldian ikusi ez zuten alabarentzat.

Kultura desberdinak, nonbait, pentsatu nuen zigarroa itzaltzen nuen bitartean.

Eta, berak errepikatzen zion bere buruari: Bai, gurasoek arrazoi date, erretzea oso kaltegarria da osasunareko.

● MIREN ETXEBERRIA ●

KANPOAN DAUDEN ORIOTARRAK



Larraza-Arizaga familia Malagan

Urtebeterako joan ziren Malagara, 13 urte daramatzate. Gusto daude, gauzak ondo dihoazkie, eta ez daude "horten urrutia" Oriotik. Urtean bi aldiz etortzen dira herrira, neguan eta udan. Egon berriak dira, otsailean, Alemaniako bueltan zetozela, justu elurtearekin batera. München izan ziren, ur-kiroletako Europako feriariak handienean. Larraza-Arizaga familiak bi denda ditu surfa-rekin zerikusia duten gauzak saltzeko: oholak, arropak... Bata Malagan bertan, senar-emazteen ardurapean; besteak, Benalmádenan, semea dago.

Orion zirela jakin zuten lau herriar Tangerriera zihoazela, Malagatik barrena, baita azkar asko helbidea eta telefonoa eman ere hara iritsitakoan deitzeko eta ahal zutenean laguntzeko. Agustin zai egon zen, zintzo asko. Malagako aireportuan, lau herriko-deak Algecirasaino eramateko bere autoan. Tangerretik bueltan berriz, senur emazteek Benalmádenako portua erakutsi eta, igande zenez eta D. Andres tartean zegoenez elizara eraman zituzten. "Ben al Madena, izenak erakusteri duen bezela, moroek sortu ziaten, eta oso herri polita dek, baina gehiegiz ari dek hazten turistikoarekin".

Agustin sasoi onean dago, surf egiten du oraindik ere, gaztetxoekin batera: "Bitan larri ibili ninduan ur azpian, atera ezinik, eta nire buruari agindu nitxeon ez nintzala gehiago sartuko; baina, gutxixea gozta bida ere, oraindik sartzen nauk". Agustinek itsasorako daukan grina Benalmádenatik gertu dagoen kirol-portu batean daukan motorrean asetzetzen du. Asteburuetan itsasora ateratzen dira arrai txikitara, "arrai asko zegok hemen 'pegkaito' horietakoak, txipiroia ere bai, baina txikia ere harrapaizten ditek eta laister ez zekiat zer izango dan". Harrapatutako arraiekin 'txoko'ra joaten dira: "ez dek Orion bezela, baina ondo egoten gaítuk han, ikurriña eta guzti; hau bilbotar batzuek sortua dek, hemen asko zegok".

Orioko martxa segitzen dute, eta gustora etortzen dira herrira. "Seinean forofo haundia dek, eta Oriok estropada edo Errealak partidua galtzen duenean gaisotu egiten dek". Gustora etortzen dira herrira, baina kaleko giroa piska bat galdu egin dela uste du Larrazak, "politika gaizki ulertuak ekarri dike hori, jendea urrundu egin dike elkarrengandik".

Tangerriera joan ziren parte-rik: eskerrik asko eta laister arte.

Aste Santua: Eliza edo Ibiza

Aste Santua gainean dugula eta, bat batean bertsolari bati entzun nion bertso hura datorkit - burura. Ez daukat behar bezala jasoa, baina ideia hauzen zen: Zaharrek bere eliza; helduek, tarte bizitzaz; gazteek, berriz, Ibiza.

Hitzez hitz eta gordinean ez da egia osoa, ezia gutxiagorik ere. Baina, gaurko jokabideari begiratuz, ez ote du nolabaiteko arrazoik? Askorentzat Aste Santua udaberriko oporraldi bihurtu dela esan behar da. Ibilaldi, atsaden egun, zubi luze gerta ohi dira. Norberak egokien iruditzen zaion aukera egiten du.

ANDRES GARMENDIA

Aste Santua, Erramu eguna narekin hasten da. Egun honen arrakasta haundia du, oraindik ere, gure herrieta. Erramuak bedeinkatu eta etxera eramatzen dira. Aste honen barruan hiru egun ditugu alpagarrienak. Sortzez, eta betidanik, izpiritua eta zentzu berbera du (gerora eranskin ugari izan arren):

– **Ostegun Santua.** Jesusek, hil aurretik, bere lagunekin Azken Afaria egin zueneko ospakizuna dugu. Bere ituna edo testamentua: *Egizue hau nire oroi garri*. Elijak, Kristau Elkarteak, jarrmitzen du misterio hau ospatzen, mezatan gizaldiz gizaldi.

– **Ostiral Santua.** Egun honen Jesusen gurutzeko heriotzari begira jartzen gaitu. Historian zehar gehien oroitzten eta arrastorik haundieta utzi duen gertaera.

– **Larunbat Santua.** Aste osoaren gailurra, festa burua,

erakusketetan, musika kontzertuan, hitzaldia etabar. Ez da herririk, txiki eta apalena izan arren, ahaleginak egingo ez dituenik, modu batera edo bestera. Itzal haundiz ospatu ere, antzinako ohiturari jarraituz. Folklore bihurtzeko arriskua sor daiteke, kultur berri honen barruan. Dena den, mundu osoan, sortaldetik sartaldera ez da aurkitzen aste honen parekorik.

tuz sarrera eginez.

Ostiral Santua, goizeko bostetan, elizatik irtetan eta gurutze-bidea egiteko ohiturari jarraituz, Goiko kaletik San Martin ermitara igo izan gara urtez urte, txiki eta handi. Matraka zaratatsu batek aspalditik esnarazten du jendea, gaueko isilean, eta erro-mesak bideratu.

Ermitan antzinako Kristo Gurutziltzatua gurtzen dugu, itzal haundiz eta debozioz. Gurutze Santu honek 1591 urtea ezkerotzik gaurdaintza dirau, irudi historiko baliotsua.

Egun berean, arratsaldean, egiten da eliz bira, Goiko kalean zehar. Pasio irudiak tartean direla, musikaz lagundua.

Eliza edo Ibiza, jokoan dago bizitza. Norberak aukera dezala.

Orion izango diren elizkizunak

Orioko herria ez dago ez atzera Aste Santuko ospakizun horien baitan.

Erramu egunez Piliku enparantzan egin ohi dugu elkarraldia, bertan erramuak bedeinkatu eta elizara, kan-





EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Zenbaki honetarako aukeratu dugun argazkia 1920ko hamarkadan ateratakooa da. Lasarten izandako Euskal festetan mozorro lehiaketa antolatu zuten eta saria oriotarrek irabazi zuten. Haietako batzuk argazkian agertzen dira. Oraingo honetan lauren izen abizenak eskatzen dizkizuegu.

Bigarren galdera: Non hil zen Aita Lertxundi?

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Afaria Ortzaika erretegian izango da.

Erantzunak apirilaren 20rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko irabazlea Joxe Erkizia Aristondo izan da. Hau da berak eman zigu erantzuna: Jose Manuel Tapia, Juan A. Uranga, Martin Urretabizkaia, J.M. Manterola, Pedro Uranga, Bittor Unanue, Iñaki Erkizia, Aitor Lertxundi, Iñaki Aramendi eta Iñaki Garate.

Bigarren galderaren erantzuna: Udaletxeoko pleno aretoan dagoen kuadroa Aritzagarena da.

ORTZAİKA
ERRETEGIA

TELEFONO: 83 32 51

Gure zaharren ahotik

Joan den KARKARAn hasitako atalari segida emateko, Purita Manterola 'Txaganekoa' elkarritzetatu du Jon Manterola ilobak.

Purita Manterola 1924ko otsailaren 16an jaio zen bizi den etxe berean: 'Txaganeko' etxeen.

Berak esaten duen bezala, 'majina' lan egindakoa da eskabitxerian eta horrexei buruz jardunzen hizketan ilobarekin.



PURITA MANTEROLA

Genuenean, jan eta, ez genuenean, egon begira; hori zen gure bizimodu. Lana beti; lanean iota kean. Besterik ez. Sarean, eta sarean ez bazea, soroan; eta, bestela, eskabitxerian. Oraingoa baino gogorragoa zen eskabitxeriako lana: orain harriak eta denak makinarekin ibiltzen dituzte. Orduan antxoari burua kendu, eta gero latetan eta barriletan jarri eta hola ibiltzen genituen. Orain makinarekin ibiltzen dituzte denak; dena eskuz, orduan. Eskabitxerian orain ez dakit nola egingo dituzten. Harriak behin behin ez dituzte erabiltzen emakumeek eta hola.

Majina bider Getariara eta, Zumaiara eta Hondarribia ere joan naiz arraia ekartzera kamionarekin. Haien esaten zuten: "Aizu, zu eta zu, eta zu Getariara..." "Bueno, goazen Getariara", eta, arraia ateratzen zutenean, *mañalak* kamioia kargatu.

Getariara, askotan, eta Zumaiara ere joan naiz, eta Hondarribia ere bai. Donostiara ere joan izan naiz, bai. Gu beti kamionean joaten ginen; Eugenioneko kamioi horretan; eta, kanpoko komisionen bat baldin bazea, kanpoko kamionean..., eta bi pezeta irabazteagatik.

Gero, erretirorako hasi ginenean paperak egiten, gure papelerik ez zen inondik azaltzen. Batzuk, guk baino gutxiago ibilitakoak *majina* batek, kobratu dute; baina gure papelerik ez zen behin ere atera. Fotografia franko ere atera eta bidalitakok baditugu: ez dakit zertarako izango ziren fotografia haiek. Beti ere, zera, paperak egiteko fotografia atera behar omen zen eta, bueno, fotografia atera eta ez dakigu... Alemanian barrena ibiliko dira gutxienez!

Eskabitxeria bat baino gehiago zegoen. Eskabitxeria hemen, zera, Rosita panadera nola bizi da? hor zen. Daniel Esnal zen, Esnal al zuen harek? Ez dakit; Daniel, behin behin. Eta hemen, zerean, berri, Itzalako horretan-eta, hor, berri, zera, Tarantinoneko. Erriberako hori geroago egiri zuten Eugenio-eta; gero, hemendik Tarantinoneko hara pasa zen. Eugenioneko, hori egin baino lehenago, han, beren zerean, Santioko bidean bizi zen eta han bertan, egiten zuten. Ni ez nintzen izan han behin ere. Jende asko ibiltzen zen orduan eskabitxerian lanean: karo! beste inorako ez zegoen-eta. Batzuk buru kentzen, koxxorenak; eta besteak latetan sartzen, besteak, atzera, karriatzen, harria karriatzen. Ez dakit non ditudan baina fotografia batzuk baditut.

Izango ziren hamar urterekin hasten zirenak eskabitxerian. San Josetako honetan hasten zen beti antxoa eskabitxerian eta San Pedroak arte. Italiara saltzen zen asko. Orduan filetek-eta ez ziren egiten: burua kendu, barrilean jarri eta, gero, Italiara bialdu horiek. Orduan, Italian esaten zuten egiten zutela honekin, pasta bat bezala egin eta tubotan jartzen zuten. Ogiaren gainean-eta jartzeko zen. Goxoa geratzen zen. Nik behin probatu nuen: pate estilokoa.

